



Ainhoa Galdeano, Panticosatik ekarri dituen garaikurrekin Bilboko Moyua plazan. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

Gure esku zer?

Joseba
Otondo

Zer dago gure esku? Izatez dena eta ia deus ere. Ia

deus ere horretarat franko oharkabeen eraman gaituzte, horretarako baliatuz produkzio sistemaren berrantolaketa, kontsumo ohiturak, eredu politikoak. Ia deus ez dagoela gure eskuetan sinestarazi nahi izan digute, bizitzeko alderdi guztiak funtsean berezkoak direla eta horiek menpekotasun eta hierarkia harremanetan antolatzen direla. Norberak du bere burua aitzinerat bakarka atera beharra.

Gure esku zer dagoen? Izatez dena. Ondokoarekin solas egitea eta solasaldian elkar aitortu eta errekonozitzea. Komunikatzea eta harremanak egitea, eta egite horretan kolektiboki antolatzea, kolektiboki gure burua ikustea eta ezagutzea auzo, herri, nazio edo klase bezala; kontzientzia hartzea. Partaidetzaren sentipena izatea eta partaide sentituta ingurukoei borondatearen indarrean eta antolaketaren balioan sinestea. Ilusioa. Jarrera aldaketa. Bizia gure eskuetan dagoela sinestea eta hala jokatzeko. Ilusioa berreskuratzea eta kutsatzea. Jakinik gure herria eta bizi dugun mundua kontrako interesen arteko talkan mugitzen direla; sistema kapitalista eta patriarkarra, izatez, indarraren erabileran oinarritzen dela eta gure bizia gure eskuetan dagoela pentsatze hutsarekin eta jarrera aldaketarekin ez dela dena aldatuko. Baina hori gabe ezinezkoa da ibiltzea. Ibiltzen hasita ikusiko da non korapilatzen den afera, interes aurkariak nola jokatzen duten eta horren aitzinean nola jokatzen dugun.

Ondokoarekin solas egitea eta herritarrek egun eguzkitsuan *lip-dub* baten grabetan inplikatzeko. Egunaren inguruan dabilen burrunba, jendearen artean sumatzen den alaitasuna, eta, ondoko egunetan, denen irrika bideoa noiz ikusten ahalko duten zain, marmarka. Ilusioa behar dugu litroka edo tonaka. •

Orain lau urte itzuli zen patinaje lehietara; Interneten ikusi zuen neska bat gurgil-lerroko patinaje artistikoa egiten eta hark egiten bazuen berak ere egin zezakeela pentsatu zuen

Bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu txapelketetarako bidaiak. Oporretan gastatuko lukeena inbertitzen duela dio, patinatzea delako bere zaletasunik handiena

liabideak» jartzen badira. Izan ere, lastima da, bere ustetan, Bizkaian izotz pista bakar bat ere ez izatea, halakorik izateak lurralde osoan patinajea asko indartuko lukeela uste baitu.

Aurrera begira, orain artean bezala, «disfrutatzea» dela bere helburu behinena aitortu du, bai eta lehiaketa gehiagotan parte hartzea ere. «Pizgarri bat

da txapelketetan parte hartzea; azken batean, zure buruari helburu bat jartzen diozu eta horrela askoz ere errazagoa da entrenatzea eta ahalik eta gehien hobetzen saiatzea».

Lehiaketetan parte hartzeak, ordea, entrenatzeaz harago eskatzen dio esfortzua Galdeanori, egiten dituen bidaiak bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu eta. «Babesleak topatzea ez da batera erreza, besteak beste, hau ez delako oso kirol ezaguna gure artean», aitortu du. Urtean zehar egindako lana bere buruari lehenik eta gainerakoei ondoren erakusteko ematen dion plazerak, ordea, merezi du esfortzua: «Oporretan gastatuko nukeena lehiaketetara joaten inbertitzen dut, nire *hobby* gus-tukoena horixe delako». •

maider.eizmendi@gaur8.info